

Segurako udalaren
Emakume eta
Gizonen Berdintasunerako
udal plangintza
2025-2027

1. Aurkezpena

Dokumentu honek Segurako herriak *Berdinbidean*-en baitan 2025-2027 epealdian garatu beharreko berdintasun politiken planifikazioa jasotzen du. Planifikazio honen helburu nagusia udalak martxan jarriko dituen berdintasunerako programa eta ekintza guztiak marko estrategiko baten barruan kokatzea da.

Planifikazio hau jorratzeko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen *Berdinbidean* Programaren laguntza eta aholkularitza jaso du. Zentzu horretan, planifikazio honen garapen prozesua (definizioa, inplementazioa eta jarraipena) *Berdinbidean* programak ezarritako lan metodologia jarraituz burutu da. Metodologia horrek ondorengo ekintzak burutzea eskatzen du:

- Udal mailan planifikazio honen garapenaren ardura duen ordezkari tekniko eta politiko bat izendatzea.
- Urtero, planifikazioa udalerraren behar eta aukeretara egokitzeko, *Berdinbidean* Programaren Aholkularitza Teknikoarekin batera udaletxean bertan burutzen diren banakako saioetan parte hartzea.
- Planifikazioa udal mailan bultzatzeko beharrezkoak diren oinarrizko baldintzak bermatzeko helburuarekin, udal politikari zein teknikariei zuzenduriko *Berdinbidean* Programak eskaintzen dituen formakuntza saioak egitea (saio horiek udaletxean bertan egiten dira).
- *Berdinbidean* Programan parte hartzen duten beste udalerrien ordezkari politiko eta teknikoekin batera antolatzen diren mintegi kolektiboetan parte hartzea.
- Urteko aurrekontuetan gutxieneko kopuru bat berdintasun politiketara bideratzea.

Azkenik, aipatu beharra dago, planifikazio honek *1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak* ezartzen dituen tokiko administrazioei dagozkien eginkizunak aintzat hartzen dituela. Zentzu horretan, dokumentu honek jasotzen duen planifikazioa udalak eginkizun horiek betetzeko duen konpromiso eta borondatearen adierazgarria da.

Aldi berean, dokumentu honek *EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko 2030 Estrategiak* planifikazio ereduari dagokionez barneratzen dituen aldaketak eta berrikuntzak kontutan hartzen ditu, lortu beharreko helburuei dagokionez epeak luzatuz eta lan ardatzei, lan ildoetara eta ekintzei dagokionez hauen arteko koherentzia indartzeko egitura zehaztuz.

2. Planifikazioaren egitura

Planifikazio eredu honek, udalak Seguran emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez sustatu nahi dituen aldaketetan jartzen du arreta. Hortik abiatuta, aldaketa horiek lortzeko bete behar diren baldintzak eta martxan jarriko diren ekintzen arteko koherentzia bermatu nahi du. Aldi berean, aipatu bezala, *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia* hartzen du aintzat eta ondorioz bertan zehaztutako ardatzak hartzen ditu oinarri:

- Gobernu ona.
- Emakumeen Ahalduntzea.
- Gizarte antolaketa bidezkoa, berdintasunezkoa eta jasangarria.
- Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Ardatz guztietan, emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, *Berdinbidean* Programan parte hartzen duten udalekin batera lortu nahi diren aldaketak zehaztu dira, hauek lortzeko baldintzak definituz. Abiapuntu horretatik, planifikazio honek ondorengo logikari erantzuten dio: udalekin batera adostutako ardatz bakoitzari dagozkion aldaketak zehaztuta daude planifikazio eremuan – aldaketa horiek lortu nahi diren helburu orokorrekin bat egiten dute – . Aldi berean, aldaketa horiek lortzeko udaletan bermatu behar diren baldintza zehatzak adostu eta planifikazio eremuan barneratu dira, hauek egingo baitute posible finkatutako aldaketa/helburuen lorpena. Udal bakoitzak, baldintza horietan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak adostu eta planifikazioan txertatu ditu, martxan jarriko den ekintza, bermatu nahi den baldintza eta lortu nahi den aldaketaren arteko koherentzia bermatuz.

3. Planifikazio prozesua eta arduradunak

Planifikazio honen diseinu, inplementazio, jarraipen eta ebaluazio prozesuaren gidaritza eta koordinaziorako ondoko arduradunak zehaztu ditu Udalak:

Arduradun teknikoa	
Izen abizenak	Lanpostua
Arantzazu Baztarrika Izagirre	Berdintasun teknikaria
Arduradun politikoa	
Izen abizenak	Arloa
Estibaliz Ripa Saez de Maturana	Berdintasun zinegotzia

Planifikazioaren lanketa eta garapenean udal arlo desberdinen ondorengo teknikari eta politikariek hartu dute parte:

Udal eragileak (maila teknikoa eta politikoan)	
Lanpostua/kargua	Arloa
Izarra Urdalleta Iraola	Alkatea
Begoña Olarte Garmendia	Gizarte langilea

Udalaren berdintasun politiken garapenean herritarren – eta zehazki emakumeen – parte hartzea sustatzeko planifikazioaren prozesuan ondorengo herri eragileek parte hartu dute:

Herri eragileak	
Herri eragilearen izena	Parte hartzerako egitura/gunea

4.1.- I. Ardatza: Gobernu ona

Gobernagarritasun ereduari dagokionez, Gobernu Onak gizartearen arazoei aurre egitea bilatzen du, herritargoaren partaidetza, justizia soziala eta komunitatea sustatuz. Zentzu horretan, Gobernu Onaz aritzeak ezinbestez genero berdintasunari egiten dio erreferentzia, alde batetik, sustatu nahi den gizarte ereduak eta harremanek emakume eta gizonen berdintasunean oinarritu behar direlako eta bestetik, hori lortzeko bidean erakundearen prozesu, prozedura eta praktikek helburu horrekin bat egin behar dutelako. Gobernu ona berdintasunarekin uztartzeko estrategia nagusia genero mainstreaming estrategia da.

Udalek – eta, orohar, erakunde publikoek – genero berdintasuna sustatzeko tresna den **zeharkakotasunaren estrategia** bultzatzeko ezinbestekoa dute arlo eta eremu ezberdinen inplikazioa bermatzea, besteak beste, garatzen diren politika guztiek lortu behar dituzten helburuen artean emakume eta gizonen berdintasuna barneratu behar dutelako.

Horretarako **konpromiso politiko sendoa** izateaz gain, udaleko arloek politika ezberdinetan genero ikuspegia txertatzeko **gaikuntza** nahikoa izatea ezinbestekoa da, honek **lan planifikatu** bat egitea erraztuko duelako. Bestalde, zehaztutako planifikazioaren jarraipenerako **koordinazio egiturak eta dinamikak** bermatu beharko ditu udalak, arlo ezberdinen partehartzea sustatuz.

Berdintasuna sustatzeko tresnei dagokionez, erakunde publikoek badaukate berezitasun propio bat, zehazki, **prozedura administratiboetan genero ikuspegia** txertatzeko aukera. Prozedura administratiboak erakundeetan egiteko moduak zehazten dituzte eta, aldi berean, udal kanpoan aldaketak sustatzeko tresna eraginkorrak dira. Udal prozedura administratiboetan genero ikuspegia txertatzeko lehentasunezkoak ondoko hauek dira:

Kontratazio publikoa.
Dirulaguntzak.
Aurrekontuak.

Epaimahaiak eta organo kolegiatuak.
Araugintza eta plangintza estrategikoak.
Komunikazioa: Hizkuntza eta irudien erabilera.
Estatistikak eta azterlanak.

Lortu nahi den aldaketa: GOBERNU ONA

A-1. Maila politiko zein teknikoan arlo desberdinen inplikazioa altua da berdintasunerako politiken garapenean. Hau da, arlo bakoitzak dagokion ardura bereganatu du. Horrek udal mailan genero zeharkakotasuna indartu du.

Bermatu beharreko baldintzak	B-A1.1. Berdintasunerako politikak udalaren lehentasunen artean egotea eta hori gauzatzeko agindu politikoa argia izatea.
	B-A1.2. Berdintasunerako politiken garapenerako beharrezkoak diren baliabideak bermatuta egotea, bai aurrekontu zehatzari, zein denbora eta baliabide pertsonalei dagokionez.
	B-A1.3. Berdintasunerako politiken garapenak planifikazioaren logikari erantzutea. Aldi berean, adosten diren planifikazioak egingarriak izatea eta arlo guztien inplikazioari erantzutea.
	B-A1.4. Berdintasunerako politiken koordinazioa bermatzen duten lan dinamika eta egiturak udalaren egunerokotasunean txertatuta egotea.
	B-A1.5. Udalaren koordinaziorako lan dinamika eta egiturek berdintasunerako politiken jarraipena era koordinatu batean egiteko aukera eskaintzea.
	B-A1.6. Politikari zein teknikariek berdintasunari buruzko gaikuntza izatea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Politikoen koordinazio guneak bere funtzioen artean planifikazioaren jarraipena egingo du.	B-A1.1., B-A1.3.	Berdintasun zinegotzia.	2025-2027
<p>Ekintzaren deskribapena</p> <p>Udal teknikariekin planifikazioa osatzeko eta jarraipena egiteko koordinazio eremu bat sortuko dugu.</p> <p>Teknikari bakoitzaren funtzioak hitzartuko ditugu. Baina, gutxienez, planifikazioaren jarraipena eta bere eremuko gaikuntza beharrak identifikatu eta komunikatu beharko ditu.</p> <p>Komunikazioa nola eta noiz egin erabakiko dugu.</p> <p>Funtzionamenduaren balorazio jarraitua egingo dugu.</p>	B-A1.1, B-A1.4., B-A1.5.	Berdintasun teknikaria	2025
<p>Ekintzaren deskribapena</p> <p>Udal planifikazioa osatuta dagoenean Plenoan onartuko da.</p>	B-A1.1.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia.	2025eko maiatza.

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Berdinbidean programa baliatuz gaikuntza saioak egingo ditugu.	B-A1.3., B-A1.6.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia	2025-2027

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Urte amaiera bakoitzean planifikazioa kontuan izanda hurrengo urterako aurrekontu proposamena egingo dugu, eta gutxienez aurreko urtekoa mantenduko da.	B-A1.2.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia	2025-2027

Lortu nahi den aldaketa: GOBERNU ONA

A-2. Udalaren prozedura administratiboak berdintasuna sustatzeko bitarteko eraginkor batean bihurtu dira.

Bermatu beharreko baldintzak	B-A1.1. Arduradun politikoek tokiko berdintasunerako politiken garapenari dagokionez legeak udalei ezartzen dizkien betebeharrak argi izatea.
	B-A1.2. Prozedura administratiboetan genero ikuspegia barneratzeko neurriak era mailakatu batean barneratzea eta planifikazioaren logikari erantzutea.
	B-A1.3. Prozedura administratiboan ardura duten politikari (alkatetza) zein teknikariek (idazkaria, kontu-hartzailea) genero ikuspegia beraien eginkizun eta betebeharretan barneratuta izatea.
	B-A1.4. Berdintasuna bultzatzeko prozedura administratiboetan barneratutako neurrien eraginkortasuna neurtzea errazten duten lan dinamika eta tresnak bermatuta egotea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Jasotzen diren datuen inguruko hausnarketa egingo dugu: zein datu jasotzen dira? nola jasotzen dira? Hauen irakurketa egin da?	B-A1.4.	Berdintasun teknikaria	2025

4.2.-II. Ardatza: Emakumeen Ahalduntzea

Ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizartean egin behar den eraldaketa sozialerako. Emakumeen ahalduntzea gizarte eraldaketa helburutzat duen prozesu bat da eta elkar elikatzen duten 3 mailatan gauzatzen da: norbereko mailan, talde mailan eta gizarte mailan.

Norbereko mailan emakumeak, beraien bizipen eta esperientziei dagokionez, genero harremanek izandako eraginaz jabetzen hasten dira. Era horretan **genero ereduak** norberaren bizitzan duen eraginaren inguruan kontzientzia hartzen doaz. Maila honetan ematen den ahalduntzeak inguru hurbila beste ikuspegi batetik ulertzen laguntzen du. Ondorioz, emakumeen eguneroko egoera eta harremanetan hartu beharreko erabakiak genero harremanen eragina ulertuta hartzea erraztuko, inguru hurbilean aldaketak egiteko gaitasuna sustatuz. Guzti horrek emakumeen autonomia sustatzeko eta hauek beraien bizitzaz jabetzeko aukera eskaintzen du.

Genero ereduak norberaren bizitzan duen eraginaren inguruan kontzientzia hartzeko **talde mailara** pasatzea funtsezkoa da. Hau da, kontzientzia kolektiboa lantzea beste emakume batzuekin sare eta harremanak sustatuz, bizipenak eta esperientziak partekatuz eta, hortik abiatuz hausnarketa kolektiboak bultzatuz. Era horretan, emakumeek partekatzen dituzten behar praktikoa eta interes estrategikoak identifikatu eta zehaztu ditzakete eta gizarte eredu berdinzaleago eta justuago bat eraikitzeko bultzatu nahi dituzten aldaketen inguruan adostasunetara iritsi daitezke.

Ahalduntze prozesuetan azken eremua **gizarte eraldaketa** dela aipatzean, genero harremanak eraldatzeko eta berdintasunean oinarritutako gizartea lortzeko ekintza kolektiborako beharrezkoak diren baldintza eta neurriak lantzeaz ari gara. Zentzu horretan, emakumeen ahalduntzeaz hitz egiterakoan ezinbestekoa da prozesu hauek parte hartze soziopolitikoarekin lotzea. Horrek udal politiken testuinguruan zera eskatzen du:

- Ahalduntze prozesuen eta tokiko politiken garapenaren arteko lotura ezartzea. Hau da, udal politiken garapenari dagokionez, ahalduntze prozesuekin udalak herriko emakumeen behar praktikoa eta interes estrategikoak ezagutzea eta horiek erabaki guneetan kontutan hartzea bilatu behar da.
- Udalak sustatzen dituen politiketan behar praktikoa eta interes estrategikoen arteko desberdintasuna ezagutzea, bakoitzak politiken garapenean duen lekua argi izateko.

Behar praktikoa: genero ereduaren eraginaren ondorioz emakumeen bizi baldintzen inguruan sortzen diren behar praktikoei buru ari gara. Adibidez, zaintza lana eta enplegua uztartzeko kontzilio-neurrien beharra. Behar praktikoei erantzutea funtsezkoa bada ere, generoan oinarritutako harreman desorekatuei dagokionez ez dute eraldaketarik eragiten.

Interes estrategikoa: Interes estrategikoa emakumeek bizi dituzten diskriminazio egoeren kontzientzia hartzetik sortzen dira. Adibidez, ahalduntze prozesuen bidez emakumeek gizarte eraldaketari lotuta adosten dituzten interesak. Beraz, interes estrategikoen helmuga, generoan oinarritutako diskriminazio eta subordinazio egoerekin amaitzeko, gizartean egiturazko eraldaketak bultzatzea da. Adibidez zaintza lanak.....

Lortu nahi den aldaketa: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A-3. Emakumeek **genero erduek** beraien bizitzan izan duten eragina identifikatzeko eta eragin horri aurre egiteko gaitasuna daukate. Hau da, beraien autonomia sustatzeko eta beraien bizitzaz jabetzeko aukera daukate.

Bermatu beharreko baldintzak	B-A3.1. Udalak emakumeen ahalduntzea zer den argi izatea. Baita ahalduntzea eta tokiko politiken arteko lotura ere.
	B-A3.2. Emakumeen ahalduntzea sustatzea udalaren lehentasunen artean egotea. Zentzu horretan, udalak emakumeen ahalduntzea sustatzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatu behar ditu.
	B-A3.3. Herriko emakumeek beraien esperientzia eta bizipenak partekatzeko gune seguruak izatea eta gune seguru horiek herri txikien ezaugarrietara egokitzea. Adibidez, anonimotasun eza.
	B-A3.4. Udalak emakumeengana iristeko zubiak eraikitzea. Aldi berean, zubi horiek emakumeen dinamiketara eta errealitatera egokitzea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Jatorri anitzeko emakumeen ahalduntzea lantzen jarraituko dugu hizkuntza ikasketen bitartez.	B-A3.3., B-A3.4.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia.	2025 momentuz.
Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
“Eskulanak egiteko gunea”n jabekuntza nola txertatu dezakegun gogoeta egingo dugu.	B-A3.3., B-A3.4.		2025

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Gasztelekuaren dinamizatzaileekin elkartuko gara bertako erabiltzaile nesken jabeak nola egin dezakegun hausnatzerko.	B-A3.3., B-A3.4.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia.	2025 maiatza

Lortu nahi den aldaketa: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A-4. Herriko emakumeak genero ikuspegi batetik beraien behar praktiko eta interes estrategikoak udalari helarazteko aukerak dituzte eta udalak beraien politiken garapenean kontutan hartzen ditu.

Bermatu beharreko baldintzak *Aurrekoei gehitzen zaizkion baldintzak	B-A4.1. Udalak ahalduntzea eta tokiko politiken arteko lotura zein den argi izatea.
	B-A4.2. Udalak herriko emakumeekin interlokuzioa bermatzen duten bideak eta espazioak sortzea.
	B-A4.3. Udalak erabaki guneetan emakumeek helarazitako behar praktikoak eta interes estrategikoak kontutan izatea. Aldi berean, horiek tokiko politiketan nola txertatzen dituen herritarrei helaraztea, lortu diren emaitzen inguruko jarraipena partekatuz.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
“Emakume sarea”rekin lanketan herriko emakumeentzako gai ezberdinei buruzko informazio juridikoa emateko saio batzuk antolatuko ditugu.	B-A4.1, B-A4.2.	Alkatea, berdintasun alorreko teknikari eta zinegotzia	2025-2027

4.3.- III. Ardatza: Gizarte antolaketa bidezkoa eta berdintasunezkoa

Emakume eta gizonen berdintasunean aurrerapausoak emateko jarrerak eta ekintza zehatzak “aldatu” edo “zuzentzeaz” gain, ezinbestekoa da **gizarte antolaketari** erreparatzea, honen oinarrian gizonen eta emakumeen arteko banaketa eta hierarkizazioa egonda, beharrezkoa bihurtzen baita maila horretan eragiteko neurriak hartzea.

Gizarte antolaketari erreparatzeak zaintza lanen berrikuspena dakar, pertsona guztiek zaintza beharrak izan arren, hauek nagusiki emakumeen eskuetan daudelako eta honek beraien bizitzetan duen inpaktu zuzenaz gain (denbora falta, lan karga eta karga emozionala, beste eremuetan aritzeko mugak...) gizartean emakume eta gizonei esleitzen zaizkien espazio, rol eta betebeharretan eragiten duelako. Zaintza lanen banaketa desorekatu honi zaintza lanei sozialki eskaintzen zaion balore urria eta ikusezintasuna gehitu behar zaio, honek ere emakume eta gizonen arteko botere harremanetan eragin zuzena duelako. Zentzu horretan, ezinbestekoa da baitere kontutan hartzea generoaz gain arrazak, jatorriak eta klase sozialak ere eragina dutela banaketa desorekatu hori indartzerakoan, zaintza lanetan ari diren emakume arrazializatu txiro eta atzerritarrei dagokionez, diskriminazioak biderkatu egiten direlako.

Zainketa lanen berrikuspenak beraz, lanen banaketa orekatuago bat lortzeko gizarte eragile ezberdinen inplikazioa handitzeaz gain, eskaintzen zaion balore eta zentralitatean eragitea lortu behar du. Hau da, gizarte antolaketa bidezko eta berdinzale batek bizitzen zaintza jarri beharko luke erdigunean eta duen balorea eta errekonozimendua eman guztion inplikazioa sustatuz.

Gizartearen antolaketa balore eta sinesmen sistema batean oinarritzen da. Hau da, **kultura** eta gizarte antolaketaren arteko lotura zuzena da, elkar elikatzen direlako. Horregatik, genero berdintasuna sustatzeko ezinbestekoa da bi eremuetan – gizarte antolaketa eta kultura – aldaketak sustatzea.

Genero ikuspegi batetik kulturaren eremuan aldaketak sustatzea gure identitatea osatzen duten eta ditugun baloreak eta sinesmenak zalantzan jartzea eskatzen du. Hori egin ezean, balore eta sinesmen horiek generoan oinarritutako bazterketa eta diskriminazio egoerak eragiteko duten ahalmena ikusezin gera daiteke. Ondorioz, bazterketa eta diskriminazio egoera horiek gure herrietan bizirik mantentzeko arriskua handia izan daiteke. Abiapuntu horretatik, udalek beraien kultur politikek bultzatzen dituzten balore eta sinesmenek genero ikuspegi batetik duten eraginaz jabetzea ezinbestekoa da, udalean dauden bazterketa eta diskriminazio horiek identifikatu eta horiek ezabatzea helburu duten politikak garatzeko.

Lortu nahi den aldaketa: GIZARTE ANTOLAKETA BIDEZKOA

A-5. Herritar guztiek dituzten zaintza beharrak kalitatez asetzeko baliabideak bermatuta daude, zaintza lanen banaketa parekidea da eta eragile guztiek zaintzarekiko ardura bereganatu dute. Horrek zaintza lanetan daudenen bizi baldintzak hobetu ditu.

Bermatu beharreko baldintzak	B-A5.1. Udalak herritarrek dituzten zaintza behar eta interesak genero ikuspegi batetik identifikatzea eta ezagutzea.
	B-A5.2. Identifikatu diren beharrei erantzuteko baliabideak izatea. Hori lortzeko, zaintzarekin lotura duten zerbitzu eta laguntzen eskumenen banaketaren arabera udalak beste administrazio publikoekin elkarlana bultzatzea.
	B-A5.3. Udalak eremu pribatu zein publikoan zaintzarekin lotura duten genero rolen eragina ezagutzea. Ezagutza horretatik abiatuta zaintzarekin lotura duten genero rolen aldaketak eragiteko politikak bultzatzea.
	B-A5.4. Udalak zaintza arduren inguruko kontzientzia barneratuta izatea eta kontzientzia hori ekintza zehatzetan gauzatzea.
	B-A5.5. Zaintza lanen aitortpena zaintzaileen lan baldintzetan islatzea.
	B-A5.6. Udalak herri mailan zaintzaren eremuan diharduten eragile desberdinen arteko elkarlana bultzatzeko guneak sortzea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Gizarte Langileak eta alkateak herriko menpekotasun egoeran dauden herritarren etxeetara egiten dituzten bisitetan, zainduen eta zaintzaileen egoera hobetzeko helbururarekin, behaketa egiterakoan generoa ikuspegia txertatuko dute.	B-A5.1., B-A5.3.	Gizarte langilea, alkatea.	2025-2027

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Gizarte langileak eta alkateak aurreko puntuan genero ikuspegia txertatzeko berdintasun teknikariarekin “zertan fijatu” zerrenda bat	B-A5.1., B-A5.3.	Gizarte langilea, alkatea eta	2025 udazkena.

osatuko dute, eta honekin batera zaiduaren, zaintzailaren eta etxean egon daitezkeen bestelako pertsinei buruzko datuk jasotzeko txantilo bat ere osatuko dute.		berdintasun teknikaria.	
---	--	-------------------------	--

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Etkez etxeko zerbitzuaren kontratazioarako agirien lanketa egiterakoan genero ikuspegitik egin eta lan baldintzak hobetzeko konpromisoa hartuko du udalak.	B-A5.4., B-A5.5.	Alkatea, udazkari-kontu-hartzailea, gizarte langilea eta berdintasun teknikaria.	2025 amaiera-2026.

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Hezkuntza foroan berdintasun teknikariak parte hartuko du eta ekintzetan genero ikuspea txertatuko du.	B-A5.1., B-A5.3., B-A5.6.	Berdintasun teknikaria	2025-2027

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Laiotz herri eskola, herriko jubilatuak eta zahar egoitzaren arteko zubiak eraikitzeko ekintza planean genero ikuspegia txertatuko da.	B-A5.6.	Alkatea eta berdintasun teknikaria	2026
Zahar egoitza eta herria uztartzeko ekintza planean genero ikuspegia txertatuko da.			
Jubilatuak eta herria uztartzeko ekintza planean genero ikuspegia txertatuko da.			

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Aurreko ekintzen jarraipena egiteko 3 hilabetetik behin berdintasun teknikaria, gizarte langilea eta alkatea bildu egingo dira.	B-A5.4.	Alkatea, gizarte langilea eta berdintasun teknikaria.	2025-2027

Lortu nahi den aldaketa: GIZARTE ANTOLAKETA BIDEZKOA

A-6. Herriko balore eta kultur eredu nagusiek ez dute generoan oinarrituriko bazterketarik eragiten eta genero ereduaren aniztasuna sustatzen dute.

Bermatu beharreko baldintzak

- B-A6.1. Udalak eta herritarrek herriko balore eta kultur eredu nagusietan generoan oinarrituta ematen diren bazterketak **identifikatzea** eta **aztertzea**.
- B-A6.2. Tokiko kultura politiketan generoan oinarrituta ematen diren bazterketak gainditzeko **helburuak** txertatzea, **ikuspegi feminista** udalaren kultura politiketan txertatzen dela bermatuz.
- B-A6.4. Kultur ekintzen planifikazioan eta antolaketan herritarren **parte hartzea aniztasunaren irizpidetik** bultzatzea. Hau da, baztertuta egon direnen aitortza eta parte hartzea bultzatzea.
- B-A6.5. Tokiko politikek **gizontasun** eredu nagusia indartzen duten eta kultura ekintzetan presente dauden baloreak gainditzeko neurriak bultzatzea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Liburutegiko arduradunarekin txoko morearen erabilera eta interesaren inguruko hausnarketa egingo dugu.	B-A6.1.	Berdintasun teknikaria eta liburutegiko arduraduna.	2025 uztaila
Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Nazioarteko egun seinalatuetarako herritarrekin batera kontzientziazio eta aldarrikapenerako ekintzak egingo ditugu.	B-A6.4.	Berdintasun teknikaria, berdintasun zinegotzia.	2025-2027
Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Harrera plana egiterakoan genero ikuspegia eta ikuspegi intersektionala izatea eskatuko zaio lana egingo duen enpresari.	B-A6.4.	Alkatea eta berdintasun teknikaria.	2025-2026

4.4.- IV. Ardatza: Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Indarkeria matxistaren adierazpenak gizartearen maila desberdinetan aurkitzen ditugu eta modu eta eremu desberdinetan gauzatzen dira. Indarkeria horren oinarria genero botere-harreman desorekatuetan dago eta betetzen duen funtzio soziala genero botere harreman horiek hainbat mekanismoen bidez sortzea eta birsortzea da. Beraz, indarkeria matxistak egiturazko izaera dauka eta gure bizitzaren eremu guztiak zeharkatzen dituen gizarte egituraketa patriarkal baten emaitza da.

Indarkeria matxistaz ari garenean kontzeptu honek bere baitan biltzen duen fenomenoaren konplexutasuna ulertzea ezinbestekoa da. Aldi berean, garrantzitsua da oso, erabiliko den terminologia ondo ulertzea eta adostea. Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako kontzeptualizazioa jarraituz, **indarkeria matxista** kontzeptuaren baitan sexu-genero-sexualitate sistemak eraikitzen dituen genero eredu nagusiak – eta beraien arteko botere harreman desorekatua – indarrean mantentzea helburu duten indarkeria adierazpen desberdinak kokatzen dira. Hau da, emakumeek emakume izateagatik bizitzako eremu guztietan jasaten dituzten indarkeria mota desberdinak – **indarkeria sexista** kontzeptuaren bidez izendatzen direnak – eta genero eredu nagusiak zalantzak jartzen dituzten pertsona orok jasotzen duten indarkeria. Azken honek LGBTBIQ+ fobiari egiten dio erreferentzia.

Indarkeria sexistaren baitan **genero indarkeria** – 1/2004 Lege Organikoak zehazten duena jarraituz – harreman heterosexualen testuinguruan bikote edo bikotekide ohien eskutik emakumeek jasotzen duten indarkeria da.

Indarkeria matxistari aurre egiteko 2 lan eremu edo estrategia nagusi identifikatzen dira:

1. Indarkeria matxistaren prebentzioa
2. Indarkeriaren arreta.

Indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeak genero eredu nagusien sozializazio prozesuak nola gauzatzen diren ulertzea eskatzen du, baita genero eredu nagusien oinarrian dauden sinesmen eta baloreetan aldaketak eragitea ere. Adibidez, gizontasun eredu nagusia eta indarkeria matxistaren arteko lotura ulertzea funtsezkoa da indarkeria eragiten duten jarrera eta portaerak aldatu nahi baditugu.

Arretari dagokionez biktimen berbiktimizazioa ekiditea premiazkoa da. Horretarako arreta zerbitzuetan jabekuntzaren ikuspegia txertatzea funtsezkoa da. Baita arreta bera erreparatzailea izatea ere, hau da, giza eskubideen ikuspegia txertatuz indarkeria pairatzeak biktiman – eta bere ingurune hurbilean - eragiten dituen kalte guztiak gainditzeko neurri integralak bermatu behar dira.

Lortu nahi den aldaketa: **INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK**

A-7. Gure herrian indarkeria matxistarik gabeko bizitzaz gozatzeko aukera dago.

Bermatu beharreko baldintzak	B-A7.1. Udalak indarkeria matxista zer den eta herri mailan nola eragiten duen ezagutzea. Aldi berean, ezagutza horretatik indarkeria matxista definitzea eta duen ikuspegia herritarrekin partekatzea .
	B-A7.2. Herri mailan indarkeria matxistarik gabeko gune seguruak sortzea (babeslekuak) eta dauden gune desberdinak seguruak bihurtzeko neurri desberdinak martxan jartzea.
	B-A7.3. Udalak indarkeria matxista bizi duten herritarrengana hurbiltzeko bide eta gune desberdinak sortzea.
	B-A7.4. Herrian indarrean dauden gizentasun ereduak berrikustea eta indarkeria matxista eragiten ez duten ereduak sustatzea.
	B-A7.5. Herritarrek bizi duten indarkeria matxistari aurre egiteko udal politikek ikuspegi komunitario bat barneratzea. Era horretan herri eragileen inplikazioa bultzatzea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Gaztelekuko hezitzaileekin indarkeria matxista identifikatzeko eta egoerak kudeatzeko duten gaitasunari buruz gogoeta egingo dugu.	B-A7.1., B-A7.2., B-A7.3., B-A7.4., B-A7.5.	Berdintasun zinegotzia eta teknikaria eta gazteriako zinegotzia.	2025-2027

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Gaztelekuko erabiltzaileekin indarkeria matxistaren inguruko lanketaren bat egitea. Aurten pornografiaren ingurukoa. (2025/4/5)	B-A7.1., B-A7.2., B-A7.3., B-A7.4., B-A7.5.	Berdintasun zinegotzia eta teknikaria eta gazteriako zinegotzia.	2025-2027

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Jatorri anitzeko emakumeen herritaratsuneko klaseetan indarkeriari buruzko saio berezi bat egingo dugu irakaslearekin aurretiaz hitzartuta.	B-A7.1., B-A7.2., B-A7.3., B-A7.4., B-A7.5.	Berdintasun zinegotzia eta teknikaria.	2025 azaroa.

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Laiotz herri eskolan sexu-heziketa programaren eraginaren hausnarketa egingo dugu eskolako arduradunekin batera.	B-A7.1., B-A7.2., B-A7.3., B-A7.4., B-A7.5.	Berdintasun zinegotzia eta teknikaria.	2025-2027

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Indarkeria Matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundeen arteko koordinazio eta arretarako tokiko I. protokoloaren berri herrian emango dugu etxeetara laburpen bat bdalita.	B-A7.1., B-A7.3.	Berdintasun zinegotzia eta teknikaria.	2025 azaroa.

Lortu nahi den aldaketa: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

A-8. Herrian indarkeria matxista bizi duten emakumeek jasotzen duten arretak jabekuntzaren ikuspegia barneratzen du eta erreparatzailea da.

Bermatu beharreko baldintzak	B-A8.1. Arreta zerbitzuek – arlo bakoitzak duen eskumena oinarri hartuta – indarkeria matxistaren inguruko gaikuntza izatea.
	B-A8.2. Berbiktimizazioa ekiditeko prozesuak bermatzea.
	B-A8.3. Bai udalak, zein arreta zerbitzuek, erreparazioa zer den argi izatea, baita erreparazioa bermatzeko eskaini beharreko arreta ere.
	B-A8.4. Arretarekin lotura duten eragile desberdinen arteko koordinazioa bermatzea.
	B-A8.5. Arreta ereduak udalerrri txikien errealitatera egokitzea.

Udalak baldintzetan eragiteko martxan jarriko dituen ekintzak

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Indarkeria Matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundeen arteko koordinazio eta arretarako tokiko I. protokoloaren mahai teknikoak gidatu urtean bi aldiz eta jarraipena nahiz hobekuntzak egin.	B-A8.1., B-A8.2.,B-A8.3., B-A8.4., B-A8.5.	Berdintasun teknikaria	2025-2027 urtean bitan.

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Jai-giroan egon litezkeen erasoei uneko arreta eta egoeraren kudeaketa egiteko tabernari eta txoznetakoekin jarraibideak emango dizkiegu.	B-A8.1., B-A8.2.,B-A8.3., B-A8.4., B-A8.5.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia.	2025-2027 jaiak baino lehen.

Ekintzaren deskribapena	Baldintza (k)	Arduradunak	Epea
Erantzun publikoaren inguruan udaleko politikariekin jarraibideak landuko ditugu, eta unean unerako bestelako elkarte edo antolauntza taldeekin prestakuntzak egingo ditugu.	B-A8.1., B-A8.2.,B-A8.3., B-A8.4., B-A8.5.	Berdintasun teknikaria eta zinegotzia.	2025-2027.

5. Baliabideak eta Kudeaketa

5.1.- Baliabide ekonomikoak

Udalak planifikazio hau aurrera eramateko oinarrizko baliabideak bideratuko ditu. Zehazki, ondorengo hauek dira bideratuko diren baliabide ekonomikoak:

Berdintasun politiken berezko finantziarioa (udala)

Urtea	Zenbatekoa
2025. urtea	34.000,00 €
2026. urtea	
2027. urtea	

Beste finantzazio iturriak

Urtea	Erakundea	Zenbatekoa
2025. urtea	Gipuzkoako Foru Aldundia	9.610,50 €
2026. urtea		
2027. urtea		